

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ostegun honetan, Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako arlo klasikoko ikasleen bederatzigarren eta azken kontzertua

Emanaldia 19:30etan hasiko da Fernando Remacha Auditorioan

Asteartea, 2018.eko martxoak 20

Ostegun honetan, martxoak 22, Fernando Remacha Auditorioan Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako III Interpretatzaile Gazteen Zikloko bederatzigarren eta azken kontzertua izango da. Emanaldia 19:30etan hasiko da eta Juan Urdiales biola joleak, Itsaso Mungia eskusoinu joleak, Sara Pérez flautistak eta Ion Osés tronpeta joleak parte hartuko dute. Sarrera dohakoa izango da aretoa bete artean.



Juan Urdiales, Itsaso Mungia, Sara Pérez eta Ion Osés.

Laukoteak musika barrokoa eta garaikidea uztartuko dituen kontzertua eskainiko du, gainera herrialde ezberdinetako sortzaileen obrak interpretatuko dituzte. Emanaldian Johann Baptist Georg Neruda sortzaile txekiarrak tronpetarako sortutako kontzertua, Yuji Takahashi japoniarraren 'Like a water buffalo' obra, Anatoly Kussyakvov errusiarrak eskusoinurako sortutako laugarren sonataren zati bat, Sofia Gubaidulina errusiarrak piano eta flautarako sortutako 'Allegro rustico' eta 'Sounds of the Forest', Claude Debussy frantziarrak piano eta flautarako egindako Bilitis obraren zati bat eta Béla Bartok hungariarrak biolarako sortutako piezaren zati bat entzuteko parada izango da.

Kontzertu ziklo honetan Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako laugarren mailako arlo klasikoko ikasleek parte hartzen dute. Eskusoinu, bonbardino, kantu, klarinete, fagot, flauta, gitarra, oboe, organu, perkusio, piano, saxofoi, tronpeta, tuba, biolin, biola eta biolontxeloko ikasleek urte amaieran eskainiko duten kontzertuaren aurrerapen bat eskaintzen dute. Kontzertu ziklo honetan guztira Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako 34 ikasleek parte hartuko dute.